

Bilboko udal eraikinetako garbitzaileen greba eskubidea ez urratzea eskatzen du LABek



FCCk azpikontrataturako UTE BIO Eraikigarbi enpresak soldata arrakala irauarazten du, Bilboko udalaren konplizitatearekin. Garbiketako langileek hitzarmen propio bat negoziatzeko borroka hasi dute partzialitateari eta soldata baxuei aurre egiteko; soldata miserableekin ordaindutako 20 orduko lanaldiak gero eta ohikoagoak dira eta gainera, enpresa berdineko kale garbitzaileekin alderatuta % 80ko soldata arrakala dute.

Greba eragin handia izan dute eta izaten jarraituko dutelakoan gaude; Haurreskola eta ikastetxeetan ez da ohiko garbiketa zerbitzurik izango. Honen aurrean, haurren ikasgela eta patio garbietan ikasteko eskubidea aitzakiatzat hartuta, hainbat hezitzaile eta irakaslek haien gain hartu dituzte lan horiek.

LABek argi adierazi nahi du horrelako jokabideek greba egin nahi duten langileen oinarrizko eskubidea urratzen dutela.

Garbiketa lanak soilik lan horietarako kontratatuta dauden langileek egin ditzakete, eta haien grebak ez errespetatzeak fokoa desbideratu eta grebaren eragina bera leuntzen du: langileek greba egiteak dakartzan ondorioak asumitzen dituzten bitartean Haurreskola eta ikastetxeak garbi mantentzen badira, prozesua luzatu besterik ez da egingo.

Bilboko udal eraikinetako (Haurreskolak eta ikastetxeak tartean) garbitzaileen apirileko greba egunen harira hainbat gogoeta partekatu nahi ditu LABek.

Greba deialdi guztietan bezala, Udalak haur, ikasle eta familien eskubideak errespetatu behar direla errepikatzen du greban dauden langileen argudioei erreparatu gabe.

Haur, ikasle zein irakasleek ikasgela eta patio garbietan ikasteko eskubidea dute noski, eta horretarako lan hori egiteaz arduratzen direnek baldintza duinak behar dituzte. Administrazioak ezartzen dituen gehiegizko zerbitzu minimoez gain lankideen greba eskubidea boikotatzeko asmo oro salatzen jarraituko dugu. Gatazka egon badago eta azalera betebeharrak bat da, enpresa eta Udalari aurpegirik zuritu edo garbitu gabe.

Egoera horren aurrean, datozen egunetan **irakasle eta hezitzaileei dei egiten diegu horrelako proposamenak onar ez ditzaten**, greban dauden langileekiko **elkartasuna erakutsi** eta dituzten bitartekoeekin hitzarmen propio eta duin baten alde **lanean dabiltzan kideen greba babes dezaten**. Era berean, Haurreskola eta ikastetxeak zikin egotearen arduradunak seinalatu eta hezitzaile, irakasle eta klaustroak animatu nahi ditugu Bilboko Udalari egoeraren ardura har dezan exiji diezaieten.

Guztiok osatzen dugu hezkuntza komunitatea, **ikastetxeetako garbiketako langileak borrokan jarraitzen duten bitartean, zuen ondoan izango gaituzue.**

LAB exige que no se vulnere el derecho a la huelga del personal de limpieza de los edificios municipales de Bilbo



UTE BIO Eraikigarbi, subcontratada por FCC, perpetúa la brecha salarial con la complicidad del ayuntamiento de Bilbo. El personal de limpieza ha iniciado la lucha por negociar un convenio propio para hacer frente a la parcialidad y a los bajos salarios; las jornadas de 20 horas pagadas con salarios miserables son cada vez más habituales y además, tienen una brecha salarial del 80% respecto a los barrenderos de la misma empresa.

Las huelgas han tenido y esperamos que sigan teniendo un gran impacto; en las Haurreskolas y en los colegios no habrá servicios de limpieza habituales. Ante ello, con el pretexto del derecho a estudiar en aulas y patios limpios de niños y niñas, varias educadoras y docentes han asumido estos trabajos.

LAB quiere dejar claro que este tipo de conductas vulneran el derecho fundamental de los y las trabajadoras que quieren hacer huelga.

Las labores de limpieza sólo las puede realizar el personal que está contratada para esas labores, y no respetar sus huelgas desvía el foco y suaviza el efecto de la huelga: si mientras las trabajadoras asumen las consecuencias que conlleva la realización de la huelga, las Haurreskolas y los centros escolares se mantendrán limpios, y el proceso no hará más que prolongarse.

LAB quiere compartir una serie de reflexiones con motivo de los días de huelga del personal de limpieza de los edificios municipales de Bilbo, entre los que se encuentran escuelas y Haurreskolas.

Como en todas las convocatorias de huelga, el Ayuntamiento reitera la necesidad de respetar los derechos del alumnado y de las familias sin reparar en los argumentos del personal en huelga.

Tanto el alumnado como el profesorado tienen derecho a estudiar en aulas y patios limpios, por supuesto, y para ello los encargados de realizar esas labores necesitan unas condiciones dignas. Seguiremos denunciando cualquier pretensión de boicotear el derecho de huelga de las compañeras más allá de los servicios mínimos abusivos que impone la Administración. Hay conflicto y aflorar es una obligación, sin blanquear ni a la empresa ni al Ayuntamiento.

Ante esta situación, hacemos un llamamiento a docentes y educadoras para que en los próximos días no acepten este tipo de propuestas, muestren su solidaridad con las trabajadoras y apoyen la huelga del personal de limpieza que trabaja por un convenio propio y digno. Asimismo, llamamos a señalar a los responsables de esta situación y animamos a docentes y claustros a que exijan al Ayuntamiento de Bilbo que se haga cargo de la situación.

Todos formamos parte de la comunidad educativa, mientras el personal de limpieza de los colegios siga luchando, nos tendréis a vuestro lado.